

## KONTROL MOZIOA

### Antondegia eremuaren desklasifikazioa dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko urtarrilaren 16an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## JUSTIFIKAZIOA

Duela bi urte jakin genuen Donostiako Udal Gobernuak Antondegian surf parke bat eraikitzeko asmoa zuela. Albistea jakin bezain pronto, eragile ugari egin zuten proiektuaren aurka: ekologistak, surflariak, herritarrak... Baina Udal Gobernuak ez du inoiz proiektua zalantzan jarri, eta surf parkearekin aurrera jarraitzeko asmoa erakutsi du behin eta berriz.

Hala ere, hilabeteak dira proiektu honen inguruko informazio zehatzik gabe eta horri buruzko interpelazioa aurkeztu genuen urtarrilaren 13an Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordean. Udal Gobernuak erantzun zigun desklasifikazioa egin ahal izateko dokumentuak egiten ari direla; beraz, espedienteak aurrera jarraitzen duela eta Udal Gobernuaren asmoa dela surf parkearekin aurrera egitea.

Gaur egungo larrialdi klimatiko egoerarekin proiektu honek talka egiten du nabarmen. Gogorazi behar dugu 2020ko martxoaren 20an Udal Gobernuak Larrialdi Klimatikoaren Adierazpena argitaratu zuela. Adierazpenari lotutako ekintza planaren helburuetako bat da lurralde berrien okupazioa murriztea eta 2010eko Plan Orokorrean urbanizagarri gisa sailkatutako lurzoru

## **EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

batzuk egikaritzeari uko egitea. Hortaz, Antondegin surf parkea egiteak talka zuzena egingo luke helburu horrekin zein Larrialdi Klimatikoari aurre egiteko beste neurri batzuekin.

Gainera, EAEko plan gidaritzan jasotzen denez, hiriek ezin dute luraren % 45 baino gehiago artifizializatu. Azken datuen arabera 2019an, Donostiako lur artifizializatuaren azalerak udal-azal osoaren % 43,39 hartzen zuen. Hau da, premiazkoa da artifizializatzeari utzi eta lurralde gehiago okupatzeari muga jartzea. Donostiako Klima 2050 Ekintza Planean jasota dago muga hori 2020an jarri behar zela; hots, 2020tik aurrera ezingo zela lur gehiago artifizializatu. Eta, aldiz, Antondegin surf parkea egingo balitz, eremu berdeak artifizializatzen jarraituko litzateke.

Aditu guztiak eta udal honetako teknikariak ere bat datoz, klima aldaketa dela eta, Donostiak eurite bortitzagoak, itsas-mailaren igoera, olatu handiagoak eta bero-boladak jasango dituela datozen urteetan. Hortaz, geure hiri horretarako prestatu eta erresiliente bihurtu beharko genuke. Esaterako, hiriko berdeguneak biderkatzen baditugu, hiriko uraren sarrera ziklikoek ebakuazio-puntu ugari izango dituzte. Horrela funtzionatzen dute “esponja hiri” edo “belaki-hiri” deiturikoek. Bestalde, zuhaitz- eta landare-masa trinko eta hostotsua zabaldu duen hiriak uda beroak askoz hobeto jasango ditu. Landare-masak tenperatura egonkortuko du, itzalak eta ebapotranspirazioa ekarriz, eta horrek saihestu egingo ditu bero-kolpeek eragindako heriotzak edo gehiegizko energia-kontsumoa. Gainera, ekosistemako espezieak babestuko ditu.

Antondegiko lursaila gure hiriaren gune berde bakarrenetakoa da eta hiriko gerriko berdean bertan dago. Donostia klima aldaketaren aurrean hiri erresilientea izateko, beharrezkoa dugu geure hiriko gune berdeak mantentzea eta gerriko berdea babestea.

Mundu osoan hiriak larrialdi klimatikoari aurre egiteko neurriak hartzen ari diren honetan, Donostiak ere bide bera hartu beharko luke, eta proiektu hau kontrako norabidean doa.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, udal honek klima larrialdiaren inguruan dituen plangintzekiko koherentziaz, bertan behera utz dezala Antondegin surf parkea egiteko proiektua.

Donostian, 2023ko urtarrilaren 19an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia